

Ni zurekin ezkondu? Ni zurekin ja jai!

Jose Luis Elorza (PSE-EE) eta Xabier Ezeizabarrena (EAJ) eserarazi ditugu elkarren ondoan. Eusko Legebiltzarrerako hauteskundearen biharamunagoan solastatu ginen. Lehendakaria nor izanen den ezagutzeko asteak beharko dira, artean giro politikoaren tenperatura hartu dugu.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

Juan Jose Ibarretxe edo Patxi Lopez. Nor izanen da lehendakari? Horixe da elkarrizketa honetan dilema nagusia. EAJ eta PSE-EE izan dira solasaldiaren ardatz nagusia, alderdi bozkatuenak biak hala biak. Alabaina, solaskideek hauteskundeetako emaitzez ateratako beste ondorio batzuk aurreratuko ditugu. Ñabardurak ñabardura, biek bat egin dute baieztapenotan:

“Biek hala biek demokratikotzat jo dituzte hauteskundeak nahiz Eusko Legebiltzarra. PPri emaitzak balekoak izan zaizkio, alderdi giltzarria bihurtu baita. Aralar –legaltasunean ari den– bigarren alderdi abertzalea bihurtu da eta goranzko joera hartu du. EAren bidea agortuta dago. EBren krisia gogorra eta estrukturala da. Halaber, politika jardun oso zaila dela baieztatu da. Lehendakariaren hautaketa oso delikatua da, egoera politikoa oso konplikatu baita. Gobernu berria osatzea zaila izan arren, hauteskundeak ez dira errepikatuko. Krisi ekonomikoak akordioak lortzera behartzen ditu EAJ eta PSE. Kezka [Ezeizabarrenaren kasuan] EAeko goberna-

garritasuna Nafarroan bezala gauzatzea da. Horrela balitz euskal politika ‘Estatu afera’ dela areago indartuko litzateke. Legez kanpo ezker abertzaleari aukera politikoak bukatu zaizkio, ETAk indarkeria amaitutzat eman ezean, politikoki ez du ezer eskaintzeko”.

Nola bizi zenuten emaitza ezagutu osteko lehen unea?

JOSE LUIS ELORZA: Ni ez nintzen sentsazio onekin gelditu, ziur asko, emaitzak objektiboki onak izan arren, PSEren emaitza hobeko espero nituelako. Bestalde, EAJ zoriondu nuen. Iñigo Urkulluk eramandako estrategia oso ona izan da, EAJk emaitza onak lortu ditu, hauteskundeak irabazi ditu, eta Ibarretxek ere bai.

XABIER EZEIZABARRENA: Nik antzeko bizipenak izan nituen. EAJren emaitzak oso onak izan dira, garaipen garbia izan da. Emaitzok ordea, aritmetika oso zaila dute. Makiabelok berak ez luke horren “ondo” egingo, emaitza hauek oso egoera konplikatu utzi dute. EAJ-

Egoera politikoa zaila izan arren, Jose Luis Elorza (PSE-EE) eta Xabier Ezeizabarrena (EAJ) solaskideek ez dute aurreikusten hauteskundeak berriz ere burutu behar izatea.

Xabier
Ezeizabarrena

Jose Luis
Elorza



ren garaipena sendoa izanik ere, PSEren emaitzak ere onak dira. Arazoa da PSEk hauteskundeak irabaztea espero zuela, eta emaitzak direnak dira, konplikatuak.

Nola ikusi zenituzten Patxi Lopez eta Ibarretxe emaitzak ezagututakoan?

ELORZA: Gau horietan emozioak pil-pilean egoten dira, emaitzen espektatibetan egotean gehiegikeria ugari izaten da. Patxi Lopez azaldu zenean, matematikoki behintzat, hirukoa berritzea ez zela posiblea ikusita, jende askoren nahiak desbordatu ziren. Orain... ikusi egin behar da. Ibarretxerena oso adierazgarria izan zen, Urkullu izan zen kapitaina, eta "Kapitainak agintzen duen tokian ez du agintzen marinelak". Edonola ere Ibarretxe *erregaitza* da. Pertsonalki lasai egoteko motiboak ditu, herriak babesa eman baitio berriz ere.

EZEIZABARRENA: Jose Luisen azalpena ontzat jotzen dut oro har, halere, ondo begiraturik, bai alderdiak –Urkullu buru dela– bai Ibarretxek berak neurtu behar izan zituzten beren jarrerak. Gau horietan sentimenduak nahasten dira, egoera oso emozionala da. Horiek kanporatzea arriskutsua da alderdien arteko geroko politika ondo gauzatzeko, emozio horiek ez dute politika egiten laguntzen. Bakoitzak bere rola jokatu zuen. PSEk edo Lopezek, nahiz eta ez lortu beraiek espero zituzten emaitzak, halako poza adieraztea normala da. PSEk aukera berria dauka. Hori nola justifikatzen duen ikusteko dago, ordea.

Bi hautagaiek bazuten motiborik pozik eta kezkatuta egoteko, beraz.

EZEIZABARRENA: Gogoeta horren atzean galdera sakonak daude. Galderak politikaren gakoaz hitz egitera garamatzate: Zer da politika? Zer politikaz ari gara? Zein norabideko politikaz? Politika egiteko zein asmoz eta helburuz? Herri baten alde lan egiteko politikaz? Edo norbait kanporatzeko? Hor dago gakoa. Politika serioa egiteko aukera du Patxi Lopezek? Zein programa eskaintzen dio EAeri? Programa azaldu behar du, baita Basagoitik ere. Edo Ibarretxe kanporatzea al da beren programa? Estrategikoki nire zalantzak ditut.

"Gobernua osatzea helburu badute, esan dezatela biek, PSEk eta PPK".

"Gobernu bat eraiki nahi dugu" esatean egia esaten dute? Norekin eta zertarako? Ez dezagun ahaztu Ibarretxe eta EAJ izan direla garaileak.

ELORZA: Ez nago horrekin ados.

Goazen atalka: nolako aukerak ditu Patxi Lopezek lehendakari izateko?

ELORZA: Lopezen aukera eta nahia –emaitzak hobeagoak izan balira– margen gehiagorekin jokatu ahal izatea zen, Gobernua minorian osatzeko eta beste alderdiekin akordioetara iristeko. Emaizta hauek asko estutu dute aukera hori. Halere, margenak espero baino estuagoak badira ere, Lopezek aukera dauka. Zer gerta daiteke? Goizegi da ezer esateko. PPK esan du Lopez sostengatuko duela. Baina hori hasierako beroaldian esaten da. Benetan ari da? Matematikoki Patxi Lopez lehendakari izan daiteke.

Hori bat al dator Lopezek kanpainan erabili zuten diskurtsoarekin?

ELORZA: Horregatik diot, gauza bat dela Basagoitirekin Gobernua osatzea, eta beste gauza bat da negoziaketa bidez akordioak egitea.

EZEIZABARRENA: Biek lotura dute. Lehendakaria zara Gobernua osatzeko, ez bakarrik lehendakari izateko. Hor dago gakoa. Gobernua osatzea helburu badute, esan dezatela biek, PSEk eta PPK.

ELORZA: Lopezek Basagoitirekin hitz egitea dauka, nahiz adostasunik ez lortu ehunetik ehunean. Lehendakaria aukeratzeko eguna iristen

"EAJK esaten badio PSEri 'lehendakaria zuena izango da', PSEk baietz esango digu programa begiratu gabe"

Xabier Ezeizabarrena



denean Basagoitik erabaki dezake aldeko botoak ematea, besterik gabe. Basagoitik arazo bat dauka, ez badio babesa ematen PP gaizki geratuko da. Dena den, Patxi Lopezen aukera bakarra bakarka gobernatzeko da, ez dut PPrekin ikusten Gobernua koalizioan –ezta UPyDrekin ere–. Madriletik saldu nahi duten hiruko hori ez dut egingarria ikusten. Gobernua minorian eta aldi aldi akordioekin gauzatzea posible ikusten dut. Norainoko akordioak? Eztabaidagarriak dira.

EZEIZABARRENA: Demagun horrela dela. Noraino joateko baina? Zer akordioen bidez? Hori ez digute argitzen. Zer nahi du PPK? Zer nahi du UPyDk? PPK eta PSEk nahi dutena garbi esan behar zuten kanpainan eta orain ere bai. Zertan ari dira? Ibarretxe kanporatzeko edo herri honetara hobekuntza nabarmenak –eta krisi ekonomikoa zuzentzea– ekarriko dituen Gobernua osatzeko?

ELORZA: Xabier, horrek ere balio du Ibarretxerentzat.

EZEIZABARRENA: Ez badute azalpenik ematen, ez. Helburu nagusia EAJ Jaurlaritzatik kanporatzea bada, ez du balio bera.



Jose Luis Elorza

• TERMOMETROA

"Ez da gauza bera Ibarretzek egin duen kanpaina, EAJk behartuta, eta berak eraman zuen politika. EAJk azken urtean erdi ezkutatua izan du estrategia subiranozalea".

Gure soziologia uste ohi den baino malguagoa da. Nik Patxi Lopezek Gobernua gauzatzeko balu, gauzatzekotan, ez nuke nahi muga horiek jartzea eta hortik abiatuta gobernatzea.

EZEIZABARRENA: Galderak lehengo lekura eramaten gaitu. Baldin eta PSEren eta PPren artean akordiorik balego Lopez lehendakari jartzeko, onartu besterik ez dugu. Edo, adibidez, EAJk esaten badio PSEri 'akordioa egingo dugu eta lehendakaria zuena izango da', PSEk baietz esango digu programa begiratu gabe. Baina, besterik frogatzen ez duten bitartean, helburua ez dute politika egitea.

ELORZA: Hori ondorioa da...

EZEIZABARRENA: ...hori helburua da. Ez litzateke horrela programa bat aurkeztuko balute, oraindik ez dute egin.

ELORZA: Programa da bakoitzak duena. Patxi Lopezek badu berea.

EZEIZABARRENA: Baina ez du zer ikusia PPK aurkeztu duenarekin, edo bai?

EAJ zein neurrian ez da jasaten ari egoera politiko ez normalaren ondorioa? Ezker abertzalearen zazpi hautesiak Legebiltzarrean ez egotearen ondorioa?

ELORZA: Galdera horrela planteatzea gizartea eta Gobernua zatitzeko modua da. Gobernu burua Ibarretxe bada abertzalea dela eta Patxi Lopez bada espainolista dela esatea... Niri ez zaizkit batere gustatzen eskema horiek. Soziologikoki ez dut gehien-go horietan sinesten. Zer da abertzale izatea? Nik esaten badut abertzale naizela, zer gertatzen da?

ELORZA: Galdera bada ere, zein da arazoa? Programa ez dagoela diozu, ez nago ados horrekin. Alderdien programetan espazio komunak daude, uneon ekonomiaren inguruko espazioak batez ere.

EZEIZABARRENA: Lopezek bakarrik gobernatuko duela dio, ez du esaten PPren botoekin gobernatuko duela.

ELORZA: Jende asko dago ustez abertzale denari eta ustez abertzale ez denari botoa eman diezaiokiena.

ELORZA: Ez nago horrekin ados.

EZEIZABARRENA: Lopezek esan zuen bozkatuena izango zela eta horrek emango ziola legitimazioa lehendakari izateko. Orain jendeari esan behar dio bera izan daitekeela lehendakari baina PPK babestuta.

ELORZA: Horrela bada ere, zein da arazoa? Programa ez dagoela diozu, ez nago ados horrekin. Alderdien programetan espazio komunak daude, uneon ekonomiaren inguruko espazioak batez ere.

EZEIZABARRENA: Lopezek bakarrik gobernatuko duela dio, ez du esaten PPren botoekin gobernatuko duela.

"Miguel Buenen egoera Gipuzkoako Diputazioan eta Ibarretxerena Jaurlaritzan egoera berdina dira"

Jose Luis Elorza

ELORZA: Besteek botoak ematen badizkiote...

EZEIZABARRENA: Bai, baina onartzen du aurkezten delako.

ELORZA: Elkarrizketak tarteko.

EZEIZABARRENA: Ez da hori bakarrik. Bakoitzak neurtu behar ditu emaitzak eta esan: bai aurkezten naiz edo ez. Edo beste bideak bilatzen ditu.

ELORZA: Hori ere egingo da.

EZEIZABARRENA: Proposamen eta programarik gabe.

ELORZA: Hori zure iritzia da. EAJk akordioak bilatu behar dituenan zer egiten du?

EZEIZABARRENA: PSEk esan dezala onartzen ditutela PPren botoak.

ELORZA: Hori da gauza bat, eta beste elkarrizketak izatea, zeren eta izango dira.

EZEIZABARRENA: Elkarrizketak noski, baina programa eztabaidagai edo Jaurlaritzan lortzeko helburuz?

ELORZA: Hor baduzue arazo bat.

EZEIZABARRENA: Denok daukagu arazoren bat.

ELORZA: Zuen arazoa da PSEren helburua Ibarretxe kentzea dela.

EZEIZABARRENA: Ibarretxek gizartearen gehiengoaren babesa jaso du, hor dago kokka eta erronka.

ELORZA: Miguel Buenen egoera Gipuzkoako Diputazioan eta Ibarretxerena Jaurlaritzan egoera berdina dira.

EZEIZABARRENA: Baina Buenen programa berea zen, bakarra.

ELORZA: Xabier, ez ahaztu gauza bat: ez da gauza bera Ibarretxek egin duen kanpaina, EAJk behartuta, eta berak eraman zuen politika. EAJk azken urtean erdi ezkutatua izan du estrategia subiranozalea. ■